



SINATZAILEA

Baztango Alkatea / Alcalde de Baztan  
FERNANDO ANBUSTEGI GOÑI  
2026/05/21

NIF: P3105000H

Espedientea 293498M

**2026ko APIRILaren 27ko EZOHIKO OSOKO BILKURA**

**SESIÓN PLENARIA EXTRAORDINARIA DE 27 DE ABRIL de 2026**

Baztango Udaletxeko Bilkura Aretoan, 2026ko apirilaren 27an, 08:00etan, Baztango Udala osoko bilkuran bildu da, ezohiko bileran, Fernando Anbustegi Goñi jauna alkate-udalburu dela, eta zinegotzi hauek etorri dira: Mariano Iribarren Irigoyen, Lorea Lizarreta Insausti, Elisa Almandoz Irigoien, Gorka Urtasun Saldias, EH-BILDU taldekoak; Florentino Goñi Tellechea, Iñigo Iturralde Eliceche eta Joseba Moreno Videgain, ZUREKIN-CONTIGO BAZTAN taldekoak; Pello Sarratea Sanzberro, Andoni Irigoyen Maritorea BAZTANGO INDEPENDIENTEAK - INDEPENDIENTES DE BAZTAN taldekoak; Anastasio Nagore Garralda, UPN; taldekoa Lander Mattin Santamaria Alcocer, GEROA BAI.

Ez da bertaratu: Alaitz Arretxea Etxeberria

Idazkari lanetan Iulen Urbiola Loyarte jauna aritu da.

Alkateak hasiera eman dio bilkurari.

*En la Sala de Sesiones del Ayuntamiento del Valle de Baztan, siendo las 08:00 horas del día 27 de abril de 2026, se reúne, en sesión extraordinaria el Pleno Municipal, presidido por el alcalde-presidente Fernando Anbustegi Goñi y con la asistencia de los siguientes concejales: Mariano Iribarren Irigoyen, Lorea Lizarreta Insausti, Elisa Almandoz Irigoien, Gorka Urtasun Saldias, por el grupo EH-BILDU; Florentino Goñi Tellechea, Iñigo Iturralde Eliceche y Joseba Moreno Videgain por el grupo ZUREKIN-CONTIGO BAZTAN; Pello Sarratea Sanzberro, Andoni Irigoyen Maritorea por el grupo BAZTANGO INDEPENDIENTEAK-INDEPENDIENTES DE BAZTAN; Anastasio Nagore Garralda, por el grupo UPN; Lander Mattin Santamaria Alcocer por el grupo GEROA BAI.*

*No asiste: Alaitz Arretxea Etxeberria*

*Actúa como secretario D. Iulen Urbiola Loyarte.*

*El alcalde da comienzo a la sesión.*

**1.- 2026/03/26KO OHIKO OSOKO BILKURARI DAGOKION AKTA ONARTU.**

Etorritakoak bat eginez 2026/03/26ko ohiko osoko bilkuraren akta aho batez berretsi dute.

**2.- LEKAROZKO CAMPUSEKO UHPAREN ETA UGPSAREN ALDAKETA XEHAKATUA, CEINEK SUSTATUA. HASIERAKO ONESPENA.**

2026/03/30eko datarekin, "Centro Europeo de Empresas e Innovación de Navarra"ren izenean aurkeztu da Lekarozko (Baztan) "Nuestra Señora del Buen Consejo" eliza katalogotik kentzeko Udalez gaidiko eragin sektorialeko planaren aldaketa xehatuaren proposamena. Duela gutxi, Nafarroako Gobernuari eskumenen eskuordetza eskatzeko izapidea egin zitzaion, Nafarroako Gobernutik Baztango Udalera; eta Lurraldeko zuzendari nagusiaren urtarrilaren 21eko 16E/2026 Ebazpenaren bidez, "Baztango Udalari baimena eman zitzaion Lekarozko (Baztan) "Enpresa Campus" bat ezartzeko Udalez gaidiko Eragin Sektorialeko Planaren

**1.- APROBACIÓN DE ACTA DE SESIÓN ORDINARIA DE 26/03/2026.**

*El acta de la sesión ordinaria de 26/03/2026 es ratificada por unanimidad de los presentes.*

**2.- MODIFICACIÓN PORMENORIZADA DEL PUM Y DEL PSIS DEL CAMPUS DE LEKAROZ, PROMOVIDA POR EL CEIN. APROBACIÓN INICIAL.**

*Con fecha 30/03/2026 en nombre de "Centro Europeo de Empresas e Innovación de Navarra" se ha presentado una propuesta de modificación pormenorizada del plan sectorial de incidencia supramunicipal para descatalogar la Iglesia Nuestra Señora del Buen Consejo, ubicada en Lekaroz (Baztan). Recientemente, se tramitó ante el Gobierno de Navarra solicitud de delegación de competencias del Gobierno de Navarra al Ayuntamiento de Baztan, y por medio de la Resolución 16E/2026, de 21 de enero, del Director General del Territorio, se autorizó "al Ayuntamiento de Baztan para que tramite y apruebe determinaciones pormenorizadas en el ámbito del Plan Sectorial de Incidencia*



SINATZAILEA

Baztango Udala Idazkaria  
JULEN URBIOLA LOYARTE  
2026/05/21

BAZTAN

Egiaztapen-aseguru kodea: 7DAA AFMT JMFL FPDD 3RRH

**2026/04/27ko ezohiko Osoko Bilkurako akta - SEFYCU 326390**



SINATZAILEA

Baztango Alkatea / Alcalde de Baztan  
FERNANDO ANBUSTEGI GOÑI  
2026/05/21

NIF: P3105000H

Espedientea 293498M

esparruan zehaztaperen xehatuak izapidetu eta onar ditzan.”

Aurrekariak azalduta, arrazoiak eta ondorioak aurkeztuta, Udaltzako kideek aipatutako gaiak bere iritzia eman ondoren eta bilkura honi dagokion soinu fitxategian bildutakoak.

**Anastasio Nagore, UPN:** Ezetz bozkatuko dugu, CEINek esku hartu behar du, urteak daramatzagu egiteko zain. Eliza hau mantendu egin zen CEINek haztegi bat egin zezan, ez da lortu, ikusten dugu urrats bat eman behar dutela, iazko urrian izan genuen azken bilerari dagokionez, gauza bera egin jarraitzen dugu, alkate jaunak helburuak lortzeko borrokan jarraitzen du.

**Pello Sarratea, Baztango Independienteak:** Alde bozkatuko dugu. Inportanteena jendearen segurtasuna iruditzen zaigu, eliza hori ez dagoelako ongi, bai iruditzen zait, zuk badakizu zer lan eman dizun gobernuak, zenbat denbora eramaten duen gai horrek eta nahi genuen erran nahiz eta CEIN enpresa publikoa izan, Nafarroako Gobernuarena da, eta nolabait ere Baztani eta iparraldeari irri egiten diote, ez da hau bakarrik: tunelen aferra, Oronozko eskolarekin ere gatazka aunitz izan dira, orduan ez dakit zertan dabilzan, erran dugun bezala aurretik segurtasuna jartzen dugu eta horregatik alde bozkatzen dugu.

**Fernando Anbustegi, Alkatea:** Batak eta bertzeak ongi erran duzue, gu ere nazkatuak gaude. Hitzarmena hor dago, hitzarmen berri bat negoziatzen ari gara duela ia hiru urte, ez digute bermerik ematen, deskatalogatzeak ez du hitzarmena deuseztatzen, eliza botatzeko nahia agertu du gobernuak eta CEINek. Lehendabiziko pausua da deskatalogatzea, baina eliza bota aintzinetik hitzarmen bat beharko dugu bermeeekin, bertzenaz gure ustez ez dugu baimenik eman beharko. Hau pausu bat da, baina bertze pausu bat falta da.

Ikusita Baztango Udaleko arkitekto aholkulariaren txostenaren eta Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen Testu Bategina onesten duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuan xedatutakoari jarraituz, Udaltzako aldeko 10 boto (EH-Bildu, Zurekin-Contigo Baztan eta Baztango Independienteen Batzordea), kontrako 1 boto (UPN) eta abstentzio 1 (Geroa Bai), **erabaki du:**

*Supramunicipal para la implantación de un “Campus Empresarial” en Lekaroz (Baztan).”*

*Explicados los antecedentes, así como los motivos y consecuencias de la misma, exponiendo los corporativos, sobre el punto de referencia, sus opiniones al efecto y recogidas en el archivo de audio de la presente sesión.*

**Anastasio Nagore, UPN:** *Vamos a votar que no, el CEIN debe de intervenir, tiene que cumplir con algo que llevamos años esperando que hagan. Esta iglesia se mantuvo para que CEIN hiciera un vivero, no se ha conseguido, vemos que tienen que dar un paso, respecto a la última reunión que tuvimos en octubre del año pasado, seguimos con lo mismo, el señor alcalde sigue peleando por conseguir objetivos.*

**Pello Sarratea, Baztango Independienteak:** *votaremos a favor. Lo más importante nos parece la seguridad de la gente, porque esa iglesia no está bien, nos parece que tú sabes el trabajo que te han dado el gobierno, cuánto tiempo lleva ese tema y queríamos decir y aunque CEIN es una empresa pública, es del Gobierno de Navarra y de alguna manera se rien de Baztan y del norte, no es sólo esto: el tema de los túneles, también ha habido muchos conflictos con la escuela de Oronoz, no sé en qué andan, como hemos dicho, ponemos por delante la seguridad y por eso votamos a favor.*

**Fernando Anbustegi, Alkatea:** *Uno y otro habéis dicho bien, nosotros también estamos hartos. El convenio está ahí, estamos negociando un nuevo convenio hace casi tres años, no nos dan la garantía, la descatalogación no rescinde el convenio, el gobierno y el CEIN han mostrado su deseo de echar la iglesia. El primer paso es descatalogar, pero antes de derribar la iglesia necesitaremos un acuerdo con garantías. Este es un paso, pero falta otro paso.*

*Visto el informe del arquitecto asesor del Ayuntamiento de Baztan y de conformidad con lo dispuesto en el Decreto Foral Legislativo 1/2017, de 26 de julio, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley Foral de Ordenación del Territorio y Urbanismo el pleno por 10 votos a favor (EH-Bildu, Zurekin-Contigo Baztan y Baztango Independienteak-Independientes de Baztan), 1 en contra (UPN) y 1 abstención (Geroa Bai), **acuerda:***



SINATZAILEA

Baztango Udala Idazkaria  
JULEN URBIOLA LOYARTE  
2026/05/21

BAZTAN

Egiaztapen-aseguru kodea: 7DAA AFMT JMFL FPDD 3RRH

2026/04/27ko ezohiko Osoko Bilkurako akta - SEFYCU 326390

Dokumentu honen eta beste informazio baten egiazkotasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://sedeelectronica.baztan.eus/> 10tik 2 orrialdea



SINATZAILEA

Baztango Alkatea / Alcalde de Baztan  
FERNANDO ANBUSTEGI GOÑI  
2026/05/21

NIF: P3105000H

Espedientea 293498M



SINATZAILEA

Baztango Udal Idazkaria  
JULEN URBIOLA LOYARTE  
2026/05/21

1.- Hasiera batez onestea udalez gaindiko plan sektorialaren aldaketa puntual xehakatur, Lekarozen (Baztan) "enpresa campusa" ezartzeko, Nuestra Señora del Buen Consejo eliza deskatalogatzeko. Hori guziaz, Baztango Udaleko arkitekto aholkulariaren txostenaren arabera (2604i015 erreferentzia) eta Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen Testu Bategina onesten duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuan ezarritakoari jarraituz.

2.- Espediente hau jendaurrean paratzea gutxienez hilabete batez, horren iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Foru Komunitatean plazaratzen diren bi egunkaritan argitaraturik, beharrezko ondorioetarako.

3.- Erabaki hau Nafarroako Gobernuak Lurralde Kohesiorako Departamentura igortzea, dagozkion txostenak egin ditzaten.

4.- Akordio hau interesdunei jakinaraztea, haren berri izan dezaten eta behar diren ondorioetarako.

### 3.- HIRI-JARDUKETARAKO PLAN BEREZIA ARIZKUNGO BOZATEKO 47. POLIGONOKO 94 LURSAILEAN, JAIME SANTIAGO ARTOLAK SUSTATUA. HASIERAKO ONESPENA.

Ikusirik, Bozateko (Arizkun, Baztan) 47. poligonoko 94 partzelako hiri jarduketarako plan berezia, Jaime Santiago Artola jaunak sustatua, eta Baztango Udaleko arkitekto aholkulariaren txostena, (2604i016 erreferentzia), zeinean erraten baita hura egokitua dagoela Nafarroako Foru Komunitateko hirigintza-legerian aurreikusita dauden xede eta eginkizunetara, eta Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen Testu Bategina onesten duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 61. eta 62. artikuluek aipaturiko dokumentazioa biltzen duela.

Udalbatzak, bertaratutako guztiak bat etorritan, aho batez honako hau **erabaki du**:

1.- **Hasiera batez onestea** Bozateko (Arizkun, Baztan) 47. poligonoko 94 partzelako hiri-jarduketarako plan berezia, Jaime Santiago Artola jaunak sustatua, hirigintzako garapenerako egiteratzeko unitate bat definitzeko, Baztango Udaleko arkitekto aholkulariaren txostenaren (2604i016 erreferentzia) arabera.

*1.- Aprobear inicialmente la modificación puntual pormenorizada del plan sectorial de incidencia supramunicipal para la implantación de un "Campus Empresarial" en Lekaroz (Baztan) para descatalogar la Iglesia Nuestra Señora del Buen Consejo. Todo ello, según el informe del arquitecto asesor del Ayuntamiento de Baztan, (referencia 2604i015) y de conformidad con lo dispuesto en el Decreto Foral Legislativo 1/2017, de 26 de julio, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley Foral de Ordenación del Territorio y Urbanismo.*

*2.- Someter el expediente a un periodo de información pública durante el plazo mínimo de 1 mes, mediante anuncio en el Boletín Oficial de Navarra y publicado en 2 diarios editados en la Comunidad Foral de Navarra, a los efectos oportunos.*

*3.- Remitir el presente acuerdo al Departamento de Cohesión Territorial del Gobierno de Navarra, a fin de que se emitan los informes correspondientes.*

*4.- Notificar el presente acuerdo a los interesados, para su conocimiento y efectos oportunos.*

### 3.- PLAN ESPECIAL DE ACTUACIÓN URBANA EN LA PARCELA 94 DEL POLÍGONO 47 DE BOZATE, ARIZKUN, PROMOVIDO POR JAIME SANTIAGO ARTOLA. APROBACIÓN INICIAL.

*Visto el proyecto del plan especial de actuación urbana en la parcela 94 del polígono 47 de Bozate (Arizkun, Baztan), promovido por D. Jaime Santiago Artola, y el informe del arquitecto asesor del Ayuntamiento de Baztan (ref. 2604i016), sobre su adecuación al objeto y funciones previstas en la legislación urbanística de la Comunidad Foral de Navarra y que reúne la documentación a que se refiere los artículos 61 y 62 del Decreto Foral Legislativo 1/2017, de 26 de julio, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley Foral de Ordenación del Territorio y Urbanismo.*

*El Pleno, por unanimidad de los presentes, acuerda:*

*1.- Aprobear inicialmente el plan especial de actuación urbana en la parcela 94 del polígono 47 de Bozate (Arizkun, Baztan), promovido por D. Jaime Santiago Artola, para definir una unidad de ejecución para desarrollar urbanísticamente, según el informe del arquitecto asesor del Ayuntamiento de Baztan (ref. 2604i016).*





SINATZAILEA

Baztango Alkatea / Alcalde de Baztan  
FERNANDO ANBUSTEGI GOÑI  
2026/05/21

NIF: P3105000H

Espedientea 293498M



SINATZAILEA

Baztango Udal Idazkaria  
JULEN URBIOLA LOYARTE  
2026/05/21

2.- Hilabete batez jendurrean paratzea aipatu hiri-jarduketarako plan bereziaren proiektua, Nafarroako Aldizkari Ofizialean, Nafarroako egunkarietan eta udal honen egoitza elektronikoa hasierako onespeneren iragarria argitaratzen denetik. Jendurrean egon bitartean edonork aztertzen ahalko du, baita bidezko diren alegazioak aurkeztu ere.

**4.- XEHETASUN-AZTERLANA ORONOZKO 7. POLIGONOKO 4 LURSAILEAN, ELÍAS GOÑI AGUIRREK SUSTATUA. BEHIN-BETIKO ONESPENA.**

Baztango Udaleko osoko bilkurak 2026/01/22an Elías Goñi Aguirrek Oronozko 7. poligonoko 4 lur-zatian sustatutako xehetasun-azterlana hasiera batean onartu zuen.

Ikusita jendurrean egon den epean ez dela alegaziorik aurkeztu eta Baztango Udaleko arkitekto aholkulariaren txostena, eta Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen Testu Bategina onesten duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuan xedatutakoari jarraituz, Udalbatzak bertaratu-takoen aho bateko adostasunez **erabaki du:**

1.- **Behin betikoz onestea** Elías Goñi Aguirrek Oronozko 7. poligonoko 4 lur-zatian sustatutako xehetasun-azterlana. Azterlan horretan proposatzen da Udal Hirigintza Planean indarrean dauden lerroak aldatzea, bizitegi-eraikuntza bat ezartzeko. Hori guziaz, Baztango Udaleko arkitekto aholkulariaren txostenaren arabera (2604i014 erreferentzia) eta Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen Testu Bategina onesten duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 74.artikuluari ezarritakoari jarraituz.

2.- Xehetasun azterlanaren behin betiko onespena Nafarroako Aldizkari Ofizialean **argitaratuko da**, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen Testu Bategina onesten duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 79. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

2.- *Someter dicho plan especial de actuación urbana a un periodo de información pública por un plazo de un mes desde la publicación del anuncio de la aprobación inicial en el Boletín Oficial de Navarra, en los diarios editados en Navarra, así como en la sede electrónica de este Ayuntamiento. Durante el periodo de información pública podrá examinarse el plan especial de actuación urbana por cualquier persona y formularse las alegaciones que procedan.*

**4.- ESTUDIO DE DETALLE EN LA PARCELA 4 DEL POLÍGONO 7 DE ORONOZ, PROMOVIDO POR ELÍAS GOÑI AGUIRRE. APROBACIÓN DEFINITIVA.**

Con fecha 22/01/2026 fue aprobado con carácter inicial el estudio de detalle de la parcela 4 del polígono 7 de Oronoz, promovido por Elías Goñi Aguirre.

A la vista de que en el plazo de exposición pública no se han presentado alegaciones, visto el informe del arquitecto asesor del Ayuntamiento de Baztan y de conformidad con lo dispuesto en el Decreto Foral Legislativo 1/2017, de 26 de julio, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley Foral de Ordenación del Territorio y Urbanismo el Pleno por unanimidad de los presentes **acuerda:**

1.- **Aprobar definitivamente** el estudio de detalle de la parcela 4 del polígono 7 de Oronoz, promovido por Elías Goñi Aguirre, mediante el que se pretenden modificar las alineaciones vigentes en el Plan Urbanístico Municipal para implantación de una edificación residencial. Todo ello, según el informe del arquitecto asesor del Ayuntamiento de Baztan, (referencia 2604i014) y de conformidad con lo dispuesto en el artículo 74 del Decreto Foral Legislativo 1/2017, de 26 de julio, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley Foral de Ordenación del Territorio y Urbanismo.

2.- La aprobación definitiva del estudio de detalle **se publicará** en el Boletín Oficial de Navarra, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 79 del Decreto Foral Legislativo 1/2017, de 26 de julio, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley Foral de Ordenación del Territorio y Urbanismo.





SINATZAILEA

Baztango Alkatea / Alcalde de Baztan  
FERNANDO ANBUSTEGI GOÑI  
2026/05/21

NIF: P3105000H

Espedientea 293498M

3.- Behin betiko onespeneri buruzko erabakia Nafarroako Gobernuko lurraldearen antolamenduaren eta hirigintzaren arloan eskumena duen Departamentuari **jakinaraziko zaio** 10 eguneko epean.

4.- Akordio hau interesdunei **jakinaraztea**, haren berri izan dezaten eta behar diren ondorioetarako.

**5.- XEHETASUN-AZTERLANA ELBETEKO 59. POLIGONOKO 65 LURSAILEAN, LAURA JAÉN PÉREZEK SUSTATUA. BEHIN-BETIKO ONESPENA.**

Baztango Udaleko osoko bilkurak 2026/01/22an Laura Jaén Pérezek Elbeteko 59. poligonoko 65 lur-zatian sustatutako xehetasun-azterlana hasiera batean onartu zuen.

Ikusita jendaurrean egon den epean ez dela alegaziorik aurkeztu eta Baztango Udaleko arkitekto aholkulariaren txostena, eta Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen Testu Bategina onesten duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuan xedatutakoari jarraituz, Udalbatzak bertarutakoen aho bateko adostasunez **erabaki du**:

1.- **Behin betikoz onestea** Laura Jaén Pérezek Elbeteko 59. poligonoko 65 lur-zatian sustatutako xehetasun-azterlana. Azterlan horretan Udal Hirigintza Planean indarrean dauden lerrokadurak aldatu nahi dira, bizitegi-eraikuntza bat ezartzeko. Hori guziaz, Baztango Udaleko arkitekto aholkulariaren txostenaren arabera (2604i017 erreferentzia) eta Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen Testu Bategina onesten duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 74.artikuluari jarraituz.

2.- Xehetasun azterlanaren behin betiko onespena Nafarroako Aldizkari Ofizialean **argitaratuko da**, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen Testu Bategina onesten duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 79.artikuluari jarraituz.

3.- Behin betiko onespeneri buruzko erabakia Nafarroako Gobernuko lurraldearen antolamenduaren eta hirigintzaren arloan eskumena duen Departamentuari **jakinaraziko zaio** 10 eguneko epean.

4.- Akordio hau interesdunei **jakinaraztea**, haren berri izan dezaten eta behar diren ondorioetarako.

3.- *El acuerdo de aprobación definitiva se comunicará al Departamento competente en materia de ordenación del territorio y urbanismo del Gobierno de Navarra, en el plazo de 10 días.*

4.- *Notificar el presente acuerdo a cuantos puedan resultar interesados, para su conocimiento y efectos oportunos.*

**5.- ESTUDIO DE DETALLE EN LA PARCELA 65 DEL POLÍGONO 59 DE ELBETE, PROMOVIDO POR LAURA JAÉN PÉREZ. APROBACIÓN DEFINITIVA.**

*Con fecha 22/01/2026 fue aprobado con carácter inicial el estudio de detalle de la parcela 65 del polígono 59 de Elbete, promovido por Laura Jaén Pérez.*

*A la vista de que en el plazo de exposición pública no se han presentado alegaciones, visto el informe del arquitecto asesor del Ayuntamiento de Baztan y de conformidad con lo dispuesto en el Decreto Foral Legislativo 1/2017, de 26 de julio, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley Foral de Ordenación del Territorio y Urbanismo el Pleno por unanimidad de los presentes **acuerda**:*

1.- *Aprobar definitivamente el estudio de detalle de la parcela 65 del polígono 59 de Elbete, promovido por Laura Jaén Pérez, mediante el que se pretenden modificar las alineaciones vigentes en el Plan Urbanístico Municipal para implantación de una edificación residencial. Todo ello, según el informe del arquitecto asesor del Ayuntamiento de Baztan, (referencia 2604i017) y de conformidad con lo dispuesto en el artículo 74 del Decreto Foral Legislativo 1/2017, de 26 de julio, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley Foral de Ordenación del Territorio y Urbanismo.*

2.- *La aprobación definitiva del estudio de detalle se publicará en el Boletín Oficial de Navarra, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 79 del Decreto Foral Legislativo 1/2017, de 26 de julio, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley Foral de Ordenación del Territorio y Urbanismo.*

3.- *El acuerdo de aprobación definitiva se comunicará al Departamento competente en materia de ordenación del territorio y urbanismo del Gobierno de Navarra, en el plazo de 10 días.*

4.- *Notificar el presente acuerdo a cuantos puedan resultar interesados, para su conocimiento y efectos oportunos.*



SINATZAILEA

Baztango Udal Idazkaria  
JULEN URBIOLA LOYARTE  
2026/05/21

BAZTAN

Egiaztapen-aseguru kodea: 7DAA AFMT JMFL FPDD 3RRH

2026/04/27ko ezohiko Osoko Bilkurako akta - SEFYCU 326390



SINATZAILEA

Baztango Alkatea / Alcalde de Baztan  
FERNANDO ANBUSTEGI GOÑI  
2026/05/21

NIF: P3105000H

Espedientea 293498M

**6.- BORONDATEZKO BIRPARTZELAZIOA LEKAROZKO MAXKOTARNEA-EU, JUAN JOSÉ ECHEVERRIAK, ALEJANDRO ELIZONDOK, MANUEL ELIZONDOK ETA UNAI ELIZONDOK SUSTATUA. BEHIN-BETIKO ONESPENA.**

2026/01/22an hasierako onarpena eman zitzaion Maxkotarnea-EU garatzeko borondatezko birpartzelazio-proiektuari, Juan Jose Echeverria Azcarragak, Alejandro Elizondo Iribarrenek, Manuel Elizondo Iribarrenek eta Unai Elizondo Urrutiak sustatua.

Jendaurrean egon ondoren, ez da alegaziorik aurkeztu. Hirigintzako udal aholkulariaren txostena (2604i012) ikusirik, Udalbatzak aho batez **erabaki du**:

1.- **Behin betikoz onestea** Javier Oteiza Larrechea arkitektoak idatzitako borondatezko birpartzelazio-proiektua, Maxkotarnea-EU garatzeko, Juan Jose Echeverria Azcarragak, Alejandro Elizondo Iribarrenek, Manuel Elizondo Iribarrenek eta Unai Elizondo Urrutiak sustatua. Hori guztia, bat etorritik uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 74. eta 152. artikuluetan xedatuarekin (legegintzako foru dekretu horren bidez onetsi zen Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina) eta Hirigintzako udal aholkulariaren txostenaren arabera (2604i012).

2.- Birpartzelazioaren behin betiko onespena Nafarroako Aldizkari Ofizialean **argitaratuko da**, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen Testu Bategina onesten duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 79. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

3.- Behin betiko onespeneri buruzko erabakia Nafarroako Gobernuak lurraldearen antolamenduaren eta hirigintzaren arloan eskumena duen Departamentuari **jakinaraziko zaio** 10 eguneko epean.

4.- Akordio hau interesdunei **jakinaraztea**, haren berri izan dezaten eta behar diren ondorioetarako.

**7.- BAZTAN-BIDASOA ESKUALDEA GARATZEKO LANKIDETZA HITZARMENA.**

Aurrekariak azalduta, arrazoiak eta ondorioak aurkeztuta, Udalbatzako kideek aipatutako gaiak bere iritzia eman ondoren eta bilkura honi dagokion soinu fitxategian bildutakoak.

**6.- REPARCELACIÓN VOLUNTARIA EN LA UE-MAXKOTARNEA DE LEKAROZ, PROMOVIDA POR JUAN JOSÉ ECHEVERRIA, ALEJANDRO ELIZONDO, MANUEL ELIZONDO Y UNAI ELIZONDO. APROBACIÓN DEFINITIVA.**

Con fecha 22/01/2026 se aprobó inicialmente la reparcelación voluntaria para desarrollo de la UE-Maxkotarnea, promovida por Juan Jose Echeverria Azcarraga, Alejandro Elizondo Iribarren, Manuel Elizondo Iribarren y Unai Elizondo Urrutia.

Transcurrido el periodo de exposición pública no se han presentado alegaciones. Teniendo en cuenta el informe del técnico municipal en urbanismo (ref. 2604i012), el Pleno por unanimidad **acuerda**:

1.- **Aprobar definitivamente** la reparcelación voluntaria redactada por el arquitecto Javier Oteiza Larrechea para desarrollo de la UE-Maxkotarnea, promovida por Juan Jose Echeverria Azcarraga, Alejandro Elizondo Iribarren, Manuel Elizondo Iribarren y Unai Elizondo Urrutia. Todo ello de conformidad con lo dispuesto en los artículos 74 y 152 del Decreto Foral Legislativo 1/2017, de 26 de julio, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley Foral de Ordenación del Territorio y Urbanismo, y con sujeción al informe emitido por el técnico municipal en urbanismo (ref. 2604i012), cuya copia se adjunta.

2.- La aprobación definitiva de la reparcelación se **publicará** en el Boletín Oficial de Navarra, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 79 del Decreto Foral Legislativo 1/2017, de 26 de julio, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley Foral de Ordenación del Territorio y Urbanismo.

3.- El acuerdo de aprobación definitiva se **comunicará** al Departamento competente en materia de ordenación del territorio y urbanismo del Gobierno de Navarra, en el plazo de 10 días.

4.- **Notificar** el presente acuerdo a cuantos puedan resultar interesados, para su conocimiento y efectos oportunos.

**7.- CONVENIO DE COLABORACIÓN PARA EL DESARROLLO DE LA COMARCA BAZTAN-BIDASOA.**

Explicados los antecedentes, así como los motivos y consecuencias de la misma, exponiendo los corporativos, sobre el punto de referencia, sus opiniones al efecto y recogidas en el archivo de audio de la presente sesión.



SINATZAILEA

Baztango Udal Idazkaria  
JULEN URBIOLA LOYARTE  
2026/05/21

BAZTAN

Egiaztapen-aseguru kodea: 7DAA AFMT JMFL FPDD 3RRH

2026/04/27ko ezohiko Osoko Bilkurako akta - SEFYCU 326390



SINATZAILEA

Baztango Alkatea / Alcalde de Baztan  
FERNANDO ANBUSTEGI GOÑI  
2026/05/21

NIF: P3105000H

Espedientea 293498M



SINATZAILEA

Baztango Udala Idazkaria  
JULEN URBIOLA LOYARTE  
2026/05/21

**Pello Sarratea, Baztango Independienteak:** duda bat, pentsatzen du aintzina ateratzen bada aurten jarriko dela martxan, aurrekontuak martxan daudenez, uste dut 20.000 euroko partida bat dagoela Cederna Garalurrena, behar izanez gero aurrekontuen aldaketaren bat egingen da?

**Fernando Anbustegi, Alkatea:** bai, hori da, aurten 20.000 euroko partida bat jarri da, oraindik ez dakigulako zenbatekoa izanen den Baztango Udalak egin beharreko ekarpena, Cederna Garalurren esperoan gaudelako, batez ere Bidasoa elikadura proiektuan badago pertsona bat lanaldi erdiko kontratuarekin, eta lanaldi osora pasatzea aurreikusten da, ez dakigu noiz hasiko den, baina kopurua ez da zehatza. Kopurua igo daiteke, kontu hartzailearekin solastua dago eta aurrekontu moldaketa egin beharko zen.

**Pello Sarratea, Baztango Independienteak:** Udaletxe baten batek kontra bozkatzen bazuen, botatzen da dena edo bakarrik bera ez da sartzen eta listo.

**Fernando Anbustegi, Alkatea:** ez dago aurreikusia, berez hau azken hilabeteetan landu da, 21 udalekin, behin eta berriz elkartu gara eta denek proposatu dugu eta uste dut gehienek pasatu izanena dutela osoko bilkuratik eta hitzarmenean udal guztiak agertzen gara, baten batek ez badu onartzen doike ezin zaio behartu, baino ez dago aurreikusia lehenagotik solastua eta adostua dagoelako. Berez ortzegunean dugu hitzordua sinatzeko eta norbaitek ez badu onartzen kanpoan geldituko zen, ezin da, ez zaio behartzen ahal.

**Lander Santamaria, Geroa Bai:** Aldeko botoa ematen dut, ikuspegi kritikoa batekin bada ere. Izan ere, aurkezten zaigun hitzarmen hau „Nafarroako beste eskualde batzuetan bezala udal-elkartea ere ez dena, 30 urteko atzerapenarekin dator, eta orain planteatzen da, badirudi bere sustatzaile eta arduradun nagusiak sinetsita daudela Bidasoko arroak pairatzen duen atzeraldi ekonomiko eta sozialaren erantzule ez direla, nahiz eta haien jardun ezak, irudimen faltak eta ekimen gabeziak egoera horretara eraman duten. Testuan “tokikeriaren ordezkapena” aipatzen da, baina haiek beraiek bizia joko balute bezala praktikatu dute tokikeria hori, eta ez da inon “aurrerapen” hitza aurkituko; agian, urtikaria eragiten dielako. Eta dagoeneko adierazten dut erabateko gaitzespena hitzarmenean sartzen den autonomia, aginte eta erabakitze gaitasun galerarekiko, hiltegiaren sustatzaile eta jabe bakar

**Pello Sarratea, Baztango Independienteak:** una duda, piensa que si sigue para adelante, se pondrá en marcha este año, ya que los presupuestos están en marcha, ¿creo que hay una partida de 20.000 euros de Cederna Garalur, si es necesario se hará alguna modificación presupuestaria?

**Fernando Anbustegi, Alcalde:** sí, eso es, este año se ha puesto una partida de 20.000 euros porque todavía no sabemos cuánto va a ser la aportación a hacer por el ayuntamiento de Baztan, porque estamos esperando a Cederna Garalur, en el proyecto Bidasoa elikadura hay una persona contratada a tiempo parcial y se prevé que pase a jornada completa, no sabemos cuándo va a empezar, pero la cantidad no es exacta. La cantidad se puede aumentar, ya se ha hablado con la interventora y habría que hacer una modificación presupuestaria.

**Pello Sarratea, Baztango Independienteak:** Si algún ayuntamiento votaba en contra, se tira todo o solo él no entra y ya está.

**Fernando Anbustegi, Alcalde:** no está previsto, en realidad esto se ha trabajado en los últimos meses, con 21 ayuntamientos, nos hemos reunido una y otra vez y todos lo hemos propuesto y creo que la mayoría habrá pasado por el pleno y en el convenio aparecemos todos los ayuntamientos, si alguno no acepta, que no se le puede obligar, no está previsto porque ya está hablado y acordado. De hecho, tenemos una cita el jueves para firmar y si alguien no acepta, se quedará fuera, no se puede, no se le puede obligar.

**Lander Santamaria, Geroa Bai:** Voto a favor, con el convencimiento crítico de que este Convenio que se nos presenta, que ni siquiera asociación de municipios como en otras zonas de Navarra, llega con 30 años de retraso y se plantea ahora, convencidos parece sus promotores y principales responsables de la recesión económica y social que sufre la cuenca del Bidasoa a la que han llevado su inacción, su falta de imaginación y de iniciativas. Se habla en el texto de “sustituir el localismo”, cuando lo han practicado como si les fuera la vida en ello, y no se encontrará en lugar alguno el término “progreso”, quizás porque les produce urticaria. Y manifiesto desde ya mi rechazo absoluto a la incorporación al convenio de la pérdida de autonomía, de autoridad y de capacidad de decisión sobre el matadero como exclusivo promotor y propietario que, desde aquí, se pretende justificar con el ahorro que para



BAZTAN

Egiaztapen-aseguru kodea: 7DAA AFMT JMFL FPDD 3RRH

2026/04/27ko ezohiko Osoko Bilkurako akta - SEFYCU 326390



SINATZAILEA

Baztango Alkatea / Alcalde de Baztan  
FERNANDO ANBUSTEGI GOÑI  
2026/05/21

NIF: P3105000H

Espedientea 293498M

gisa. Izan ere, hemendik justifikatu nahi da Baztanentzat aurrezki bat izanen dela, ustez inplikaturako guztiek urteko mantentze-gastuetan parte hartuko dutelako.

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 11. artikulua eta 47-49 artikuluen arabera.

Alkateak bozkatzera deitu du. Udalbatzak, aldeko 11 botoekin (EH-Bildu, Zurekin-Contigo Baztan, UPN eta Baztango Independenteen Batzordea) eta abstentzio batekin (Geroa Bai), honako hau **erabaki du**:

- 1.- **Onartzea** Baztan-Bidasoa eskualdea garatzeko lankidetzaren hitzarmena.
- 2.- Hitzarmenean jasotako kuotaren ordainketa 2026ko aurrekontua behin betiko onartzearen eta kreditu nahikoa egotearen mende egonen da, eta, horretarako, dagokion aurrekontu aldaketa izapidetuko da, beharrezkoa izanez gero.
- 3.- Alkateari **ahalmena ematea** erabaki hau aplikatzeko eta garatzeko beharrezkoa den dokumentazio guztia izenpetzeko.
- 4.- Akordio hau interesdunei **jakinaraztea**, haren berri izan dezaten eta behar diren ondorioetarako.
- 5.- Akordioa Nafarroako Aldizkari Ofizialean **argitaratzea**.

## GALDE- ESKEAK

**Pello Sarratea, Baztango Independentiak:** Galdetu nola doan Almandozko jangelan kontua eta berririk dagoen edo nola.

**Elisa Almandoz, EH-Bildu:** Astelehenean bildu nintzen Basaburuako gurasoekin, hezkuntza departamentutik erran ziguten eskola komarkalizatzea beharrezkoa zela, horrek suposatzen du familiek erabaki bat hartu behar dutela, momentu honetan badaude Berroetako haur batzuk Elizondoko eskola lara joaten direnak, eta horien egoera baldintzatua geldituko zen, aukera izanen zuten Elizondoko eskolan jarraitzeko, baldintzatuta egonen da garraio aldetik, momentu honetan taxi bat izanen zuten, baina bi edo hiru ikasle dauden momentuan, garraioa laguntza ekonomikoa izanen zuten, baina taxia ez. Orain beraien teiltuan dago pilotua, beraiek erran behar dute prest dauden etorkizunean gan torri hori beraien kargu hartzeko edo ez. Horren arabera komarkalizazio hori nahi duten edo ez, baieztatu bada, orduan jantokiaren obra egiten hasten ahalko zen.

*Baztan supondrá la presunta participación de todos los implicados en los gastos anuales de mantenimiento.*

*De conformidad con el artículo 11 y los artículos 47 a 49 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre de Régimen Jurídico del Sector Público.*

*El alcalde llama a votar. El pleno por 11 votos a favor (EH-Bildu, Zurekin-Contigo Baztan, UPN y Baztango Independienteak-Independientes de Baztan y 1 abstención (Geroa Bai), **acuerda:***

- 1.- **Aprobar** el convenio de colaboración para el desarrollo de la comarca Baztan -Bidasoa.
- 2.- **El pago** de la cuota reflejada en el convenio estará condicionado a la aprobación definitiva del presupuesto 2026 y a la existencia de crédito suficiente, para lo cual se tramitará la oportuna modificación presupuestaria, en caso de ser necesaria.
- 3.- **Facultar** al alcalde para la firma de cuanta documentación fuera precisa suscribir en aplicación y desarrollo del presente acuerdo.
- 4.- **Notificar** el presente acuerdo a los interesados, para su conocimiento y efectos oportunos.
- 5.- **Publicar** el acuerdo en el Boletín Oficial de Navarra.

## RUEGOS-PREGUNTAS

**Pello Sarratea, Baztango Independentiak:** Preguntar cómo va lo del comedor de Almandoz y si hay noticias o qué.

**Elisa Almandoz, EH-Bildu:** El lunes me reuní con los padres y madres de Basaburu, desde el departamento de educación nos dijeron que se tendría que comarcalizar la escuela, eso supone que las familias tienen que tomar una decisión, en este momento hay niños y niñas de Berroeta que van a la escuela de Elizondo, y su situación iba a quedar condicionada, iban a poder seguir en la escuela de Elizondo, pero va a estar condicionada en cuanto a transporte, ahora tienen taxi, pero en cuanto haya dos o tres alumnos/as, tendrán ayuda económica de transporte, pero taxi no. Ahora la pelota está en su tejado, ellos tienen que decir si están listos para asumir o no en el futuro. En función de si desean o no dicha comarcalización, y en el caso afirmativo, entonces se podrá iniciar la obra del comedor.



SINATZAILEA

Baztango Udala Idazkaria  
JULEN URBIOLA LOYARTE  
2026/05/21

BAZTAN

Egiaztapen-aseguru kodea: 7DAA AFMT JMFL FPDD 3RRH

2026/04/27ko ezohiko Osoko Bilkurako akta - SEFYCU 326390

Dokumentu honen eta beste informazio baten egiaztasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://sedeelectronica.baztan.eus/> 10tik 8 orrialdea



SINATZAILEA

Baztango Alkatea / Alcalde de Baztan  
FERNANDO ANBUSTEGI GONI  
2026/05/21

**Lander Santamaria, Geroa Bai:** Zergatik diozue Nafarroako Gobernuak argi utzi duela ez duela zahar egoitzaren berrikuntza finantzatzen lagundu nahi?

**Fernando Anbustegi, Alkatea:** Nik hiru urte eskas daramazkit hemen, Maria Chivite Nafarroako lehendakariarekin egon nintzen legegintzaldi hasmentan, denen aintzinean bilera publiko batean, aipatu nion aintzineko legegintzaldian Nafarroako Gobernuak ez zuela dirurik hemengo erresidentziako lehenbiziko faseko erreformarako, legegintza hasieran galdetu nion bigarren faserako dirurik izanzen zen, bere erantzuna haserre gainera, izan zen garestia zela eta ez zegoela dirurik, hori bai aintzinetik aipatua zituen Nafarroako ubidea, Belateko tunela, osasun etxeren bat, milioiak eta milioiak. Hortik hilabete gutira irakurri genuen prentsan Lizarrako erresidentzia bat, Nafarroako Gobernuak dena finantziatuko zuela 10 miloi eta piko euro, ehuneko ehunean. Hau garestia bada hura proportzioan gehiago. Geroztik ondoko bi urte eta erdietan Maria Chivitekin ez dugu solasteko aukerarik izan, bai bere alderdiko kidea den Carmen Maeztu, eskubide sozialetako kontseilariarekin, behin eta berriz bigarren faserako dirua eskatu diogu eta bere hitzak dira: bertze lehentasun batzuk daude, ez dago dirurik zaharren egoitza berritzeko. Ez da nik zer pentsatzen duten, bere hitzak dira: zero euro. Saiatu gara EH Bildutik parlamentarien bidez ere eragiten Eskubide Sozialetako Departamentuan eta baita Nafarroako aurrekontuen negoziazioetan eta eskubide sozialetako departamentuak ez du euro bat ere jarri. Miloi bat lortu da EH Bilduk Nafarroako aurrekontuetan bere bozka baldintzatzearen truke, hori da errealitatea, eta guk bizi izan duguna, eta horretaz diogu Nafarroako Gobernuak ez duela finantziazio nahirik eta gogorik, praktikan zero euro jarri dituelako eta gainera behin eta berriz bertze lehentasun batzuk dituela erran duelako, hau ez da lehentasuna.

**Lander Santamaria, Geroa Bai:** Ez al zen ezer ere kudeatu Nafarroako Gobernuarekin hau gauzatu aurretik? Hau da, udalak egoitzaren erreforma planteatu zuen, proiektu bat egin zen, aurrekontu bat prestatu zen... garai hartan ez al zen Nafarroako Gobernura jo gaia azaltzera eta zer egin nahi zen azaltzera, edota zer nolako finantzaketa eman zezakeen aztertzeraz?

**Lander Santamaria, Geroa Bai:** ¿Por qué decís que el Gobierno de Navarra parece que ha dejado claro que no quiere colaborar en la financiación de la reforma de la residencia?

**Fernando Anbustegi, Alcalde:** Yo llevo tres años justitos, estuve con la presidenta de Navarra, María Chivite, al principio de la legislatura, ante todos en una reunión pública, le comenté que en la legislatura anterior el Gobierno de Navarra no había aportado dinero para la reforma de la primera fase de la residencia, al principio de la legislatura le pregunté si iba a haber dinero para la segunda fase, su respuesta fue además con enfado, que era caro y que no había dinero, eso sí antes había mencionado el canal de Navarra, el túnel de Belate, alguna centro de salud, millones y millones. Poco más de un mes después, leíamos en la prensa que una residencia de Estella, el Gobierno de Navarra financiaría con 10 millones y pico de euros, al cien por cien. Si esta residencia es cara, esa, a proporción, es más cara. Durante los dos años y medio siguientes no hemos tenido ocasión de hablar con María Chivite, si con la consejera de derechos sociales, Carmen Maeztu, miembro de su partido, a la que hemos invitado reiteradamente. Le hemos pedido dinero para la segunda fase, estas son sus palabras: hay otras prioridades, no hay dinero para la reforma de la residencia. No es lo que pienso yo, son sus palabras: cero euros. Desde EH Bildu hemos intentado influir también a través de los parlamentarios en el Departamento de Derechos Sociales y también en las negociaciones presupuestarias en Navarra y el departamento de derechos sociales no ha puesto ni un euro. Se ha conseguido un millón a cambio de que EH Bildu condicionara su voto en los Presupuestos de Navarra, esa es la realidad y lo que nosotros hemos vivido, y por eso decimos que el Gobierno de Navarra no quiere, ni tiene ganas de financiar, porque ha puesto cero euros en la práctica y además una y otra vez tiene otras prioridades, esto no es una prioridad para ellos.

**Lander Santamaria, Geroa Bai:** ¿No se gestionó absolutamente nada con el Gobierno de Navarra antes de llevarlo a cabo? ¿Quiero decir el ayuntamiento se plantea la reforma de la residencia, se hizo un proyecto, se hace un presupuesto, en aquel entonces no se acudió al Gobierno de Navarra para exponer el asunto y explicar lo que se iba a hacer y cuál era la posibilidad de financiación que podía aportar?



SINATZAILEA

Baztango Udal Idazkaria  
JULEN URBIOLA LOYARTE  
2026/05/21



SINATZAILEA

Baztango Alkatea / Alcalde de Baztan  
FERNANDO ANBUSTEGI GOÑI  
2026/05/21

NIF: P3105000H

Espedientea 293498M



SINATZAILEA

Baztango Udal Idazkaria  
JULEN URBIOLA LOYARTE  
2026/05/21

**Fernando Anbustegi, Alkatea:** Noski, eta erantzuna ezaguna duzu, Nafarroako Gobernuak jarri du euro bakar bat hemen? Erantzuten dizut, ez. Lehendabiziko fasea egin baino lehen ere izan ziren bilerak, aintzineko legegintzaldia zen, gu ez ginen hemen baina kontziente gara, Joseba egon zen, arkitektoa egon zen, idazkaria egon zen, izan ziren bilera batzuk, erantzuna bistakoa da zero euro jarri ditu Nafarroako Gobernuak eta bigarren fasean berdin. Hori bai espainiar gobernutik badakizu lau miloi euro lortu zirela, EH Bilduk hori ere bai, Espainiako kongresuan aurrekontuak ahalbideratzearen truke. Baina Nafarroako Gobernuak ez du euro bakar bat ere jarri eta gainera kontseilariak garbi utzi digu badirela bertze lehentasun batzuk, zuek gobernuo kide zarete, orduan zuek jakinen duzue zeintzuk diren lehentasunak.

Jarraian, alkate-udalburu jaunak bilkura amaitutzat eman du 08:23an. Idazkari gisa, horren guztiaren fede ematen dut.

ALKATEA  
EL ALCALDE

**Fernando Anbustegi, Alcalde:** Por supuesto, y la respuesta es conocida, ¿el Gobierno de Navarra ha puesto un euro aquí? Te contesto, no. Antes de la primera fase ya hubo reuniones, era la legislatura anterior, nosotros no estábamos, pero somos conscientes, estuvo Joseba, estuvo el arquitecto, estuvo el secretario, hubo algunas reuniones, la respuesta es evidente, el Gobierno de Navarra ha puesto cero euros y en la segunda fase igual. Eso sí, desde el Gobierno de España sabes que se consiguieron cuatro millones de euros, también por EH Bildu, a cambio de posibilitar los presupuestos en el congreso español. Pero el Gobierno de Navarra no ha puesto ni un euro y además la consejera nos ha dejado claro que hay otras prioridades, vosotros formáis parte del gobierno, entonces vosotros sabréis cuáles son las prioridades.

Seguidamente, por el Sr. alcalde se levanta la sesión, siendo las 08:23 horas, de todo lo cual, como secretario doy fe.

IDAZKARIA  
EL SECRETARIO

